

Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerri euskaldunetan

EMAITZA OROKORRAK



2022ko ekaina



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	2
Metodologia.....	3
Ikasleen hizkuntza-ezaugarriak	5
• Lehen hizkuntza	5
• Erraztasun erlatiboa.....	7
• Erabilera.....	9
• Txat bidezko erabilera	13
Telebista.....	16
• Telebista lineala	16
• Plataformak.....	20
• Telesailak.....	23
• Telesailen hizkuntza.....	25
Sare sozialak	28
• Erabilera orokorra.....	28
• Youtube	31
• Tiktok.....	36
• Instagram.....	38
• Twitch.....	41
Musika	44
• Musika entzuteko bitartekoa	44
• Musika entzuteko hizkuntza.....	46
Bideojokoak.....	48
• Bideojokoetan emandako denbora	48
• Bideojokoen hizkuntza.....	50
Ondorioak	52

HITZAURREA

Ikus-entzunezkoen eremuak salto handia eman du azken urteetan: euskarri berriak sortu dira, eskaintza asko ugaritu da, eta kontsumoan erroko aldaketak gertatu dira. Aldaketa handia ekarri du horrek, eta bereziki belaunaldi berrietan sumatzen da hori. Euskararen erabileran badu eragina horrek: hainbat ikastetxetan dago kezka pantailen kontsumoak belaunaldi berrien hizkuntza-gaitasunean, ohituretan eta erabileran daukan inpaktuagatik. Erdarazkoa baita kontsumo gehiena.

Egoera hori ikusirik, azkenaldian hainbat eragilek ohartarazi dute ikus-entzunezkoen esparruan euskararen aldeko apustu handiagoa egin beharraz. Pantailak Euskaraz mugimendua izan da aldarri horren ikur nagusia. Mugimendu horrek *Euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko manifestua* aurkeztu zuen 2020ko abenduan, eta sinatzaileen artean zen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. Udalerrri euskaldunetan ere bete-betean ari baita eragiten ikus-entzunezkoen kontsumo aldaketa.

Jasotako kezkari bide emate aldera, egoeraren diagnosi zehatza egitea erabaki du UEMAk, eta ikerketa zabal bat jarri du martxan bere herrietan: helburua da gaztetxoek ikus-entzunezkoetan egiten duten kontsumoa aztertzea, horren argitan politika egokiak lantzeko. Era zabalean hartu dira ikus-entzunezkoak: telebistari eta plataformei ez ezik, erreparatu zaie sare sozialei, musikari eta bideojokoei ere. Horrekin batera, analisi ahalik eta egokiena egite aldera, ikasleen hizkuntza-ezaugarriei buruzko datuak bildu dira; hizkuntza-plangintzarako informazio garrantzitsua da hori.

UEMAko herrietako ikastetxeen bidez bideratu dira galdetegiak batez ere, Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik Batxilergoko bigarren mailara, eta benetan lagin handia eskuratu da: ia 11.600 inkesta baliozko. Bihoakie gure eskerra ikerketa hau egiteko laguntza eman duten ikastetxe guztiei.

Argazki bat da ikerketa honetan osatutakoa, UEMAko udalerrietako gaztetxoek ikus-entzunezko kontsumoari buruzko argazki bat. Argazki hori ez da estatikoa: ikus-entzunezkoen kontsumoan azkartasun handiz gertatzen dira aldaketak, eta, beraz, ezinbestekoa da aldian-aldian gaurkotzea argazki hori. Ikerketa honen aztergaia UEMAko udalerrriak dira, eta belaunaldi berriak; horrenbestez, ezin dira datuak Euskal Herri osora estrapolatu, gune soziolinguistiko jakin bateko gaztetxoak hartu direlako aztergai, eta, aldi berean, emaitzak ezin dira estrapolatu UEMAko udalerrietako biztanle guztiengana ere, 9-17 urte bitarteko herritarren kontsumoa ikertu baita.

METODOLOGIA

Behetik gora eraikitako ikerketa-eredua izan du azterketa honek. Ikastetxeak izan dira oinarria: haien bidez zabaldu dira galdetegiak, eta ikasleek zentroan bertan erantzun dituzte. Izan ere, helburua izan da ikastetxe eta udalerri bakoitzeko emaitza esanguratsuak eskuratzea, hartara hezkuntza-zentroen proiektuetan eta udalerriko plangintzetan ere erabili ahal izateko. UEMako udalerrietako ikastetxe guztiei bidali zaie ikerketan parte hartzeko gonbita —Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko zentroei—. UEMako udalerri batzuetan, ordea, ez dute ikastetxerik —edo ez daukate irakastaldi guztietako hezkuntza-eskaintzarik—. Kasu horretan, bi eratara jokatu da: herriko ikasleak UEMako beste herri batean eskolatuta badaude, han jaso dira haien datuak —eskualde-buruetan, esaterako—; UEMako herrietatik kanpoko ikastetxeetan ari baldin badira ikasten, udalek bideratu dizkiete galdetegiak udalerritik kanpo eskolatuta dauden ikasleei.

Hemen jaso dira azterketaren metodologiari buruzko xehetasun nagusiak:

- **Zein da unibertsoa?** UEMako udalerrietan bizi diren gaztetxoak, ikasmaila hauetan ari direnak: Lehen Hezkuntzan, 4-5-6 mailetan; DBHn, 1-2-3-4 mailetan; eta Batxilergoan, 1-2 mailetan. Oro har, beraz, 2004-2012 artean jaioetako gaztetxoak hartu dira aztergai —2004-2005ean jaioetakoek pisu gutxiago dute laginean, Lanbide Heziketan ez delako egin galdetegirik; izan ere, adin-banaketa eta zentroen antolaketa desberdinak dira irakastaldi horretan, eta horrek zailtasun handia zekarren galdetegiak bideratzerakoan—.

Estimazio bat egin da unibertsoa zenbatekoa litzatekeen jakiteko, estatistika ofizialak oinarri hartuta: batetik, kalkulatu da UEMako udalerrietan zenbat biztanle diren 2004-2012 artean jaioak; bestetik, kalkulatu da horietatik zenbat dauden eskolatuta aipatutako ikasmailetan. Kalkulatu da azterketaren unibertsoa 26.315 herritarrek osatzen dutela.

- **Zenbateko lagina lortu da?** 11.571 inkesta baliozkotu dira. Horiek baino galdetegi gehiago jaso dira, baina baztertu egin dira osorik bete gabekoak eta UEMATik herrietatik kanpoko ikasleek erantzundakoak —badago ikasle multzo txiki bat ikastetxea UEMako udalerri batean duena, nahiz eta bizilekua UEMakoa ez den herri bat izan; azterketaren unibertsoetik kanpo geratzen direnez ikasle horiek, baztertu egin dira haien galdetegiak—. *Online* plataforma baten bidez egin dira galdetegiak, eta era automatikoan jaso dira datuak. Ondoren, datuak garbitzeko lana egin du UEMak, fidagarritasuna bermatzeko helburuz.

- **Zein da akats-tartea?** %99ko konfiantza-mailarekin, %0,9 puntuko akats-tartea du inkestak.
- **Zer alde dago unibertsoaren eta laginaren artean?** Ikerketa-planteamendu horrekin, non helburua zen ikastetxearen eta udalerriaren arabera datu adierazgarriak lortzea, badaude diferentzia batzuk unibertso eta lagin orokorrak konparatuta, bi arrazoiengatik: batetik, zentro batzuek ez dituzte galdetegiak bideratu, eta horrek ekarri du lagina desbideratzea; bestetik, UEMAko udalerri batzuetan ez dute ikastetxerik, eta udalen bidez zabaldutako deialdiek erantzun apalagoa izan dute, eskolan bertan galdetegiak betetzearekin konparatuta.

Udalerriak eta ikastetxeak direnez oinarrizko elementua, horietan dagoen desorekari begiratu zaio batez ere, eta bi puntuz azpikoa da aldea. Euskaldunen ezagutzaren arabera bi tipotan bereiztu dira udalerriak —arnasgune gisa izendatu dira euskaldunak %80 baino gehiago diren herriak, eta hortik beherakoak, udalerri euskaldun gisa—, eta badago aldea laginetik unibertsoa: arnasguneetako ikasleak %24 dira unibertsoan, eta %25,8 laginean; gainerako udalerri euskaldunetako ikasleak %76 dira, eta laginean, %74,2. Ez da diferentzia handia. Kontuan hartu behar da beste elementu bat ere: udalerriaren arabera soilik ez, ikastetxe batetik bestera ere nabarmen aldatzen da ikasleen soslai, eta galdetegiak ez dituzte bete zentro guztiek. Horrek oztopoak dakartza emaitzak haztatzeari begira, kontrolatu gabeko elementua baita ikastetxe bakoitzeko ikasleen soslai. Horrenbestez, azterketa orokor hau taxutzeko ez da galdetegietako erantzunik haztatu, eta bere horretan landu dira emaitzak.

- **Nola landu dira emaitzak?** Dokumentu honetan jasotako azterketa xeheaz harago, bi txosten-mota landu dira: batetik, inkestan parte hartu duen ikastetxe bakoitzari bidali zaizkio bere ikasleen emaitzak; bestetik, udalei igorri zaizkie udalerriko ikasleen emaitzak. Horren helburua bikoitza da: batetik, ikastetxe eta udal bakoitzak jakitea zein den bere ikasleriaren egoera emaitza orokorrekin alderatuta, eta, bestetik, beren plangintzetan kontuan hartzea inkestaren emaitzak —kontsumoarenak eta aldagai soziolinguistikoak—.


IKASLEEN HIZKUNTZA-EZAUGARRIAK

Ikus-entzunezkoen kontsumoa sakon aztertze aldera, ikasleen hizkuntza-ezaugarriei buruzko galderak ere txertatu dira inkestan. Datu horiek interes handia dute bere horretan, udalerri euskaldunetan bolumen honekin egindako lehen azterketa baita honako hau. Lehen atal honetan jaso dora ikasleen hizkuntza-ezaugarrien datuak: lehen hizkuntza, erraztasun erlatiboa eta erabilera. Ezagutza ez da aztertu, uste izanik unibertso honetan erabatekoa dela euskararen ezagutza

LEHEN HIZKUNTZA

Lehenik aztertu da zein den ikasleen lehen hizkuntza, umetan transmititu zieten —*ama-hizkuntza* ere esan izan zaio—. Salbuespenak salbuespen, laginean sartu diren ikasle guztiek dakite euskaraz, guztiak dira D ereduko ikasleak, baina urteotako azterketek agerian jarri dute euskararen erabilerari dagokionez garrantzi handiko aldagaia dela lehen hizkuntza. Eraitza orokorrekin argazki hau dakarte: euskara dute lehen hizkuntza ikasle gehienek, bostetik hiruk (%59), eta horien atzetik daude euskara eta erdara batera jaso dituztenak (%24). Alde horretatik, beraz, esan daiteke ikasleen %83k euskara jaso dutela etxean —nolanahi ere, erraztasun erlatiboari eta erabilerari begira, ez dira parekoak bi hizkuntzen transmisioa eta euskara hutsezkoa—. Euskara lehen hizkuntza gisa jaso ez dutenei dagokienez, gaztelania jaso dutenena da multzo nagusia (%12), eta atzerago daude gainerakoak (%5).

1. grafikoa: Ikasleen lehen hizkuntza (%)




Iturria: UEMA

Datu horietan nabarmentzekoa da euskararen eta erdararen aldi bereko transmisioaren indarra. Udalerri euskaldunetako biztanleria orokorrarekin konparatuta, belaunaldi berrietan handiagoa da bi hizkuntzen transmisioa —guraso berrien ezaugarriekin lotua dago maiz, bikote misto gehiago baitaude, edo euskara lehen hizkuntza ez duten bikoteak—. Nolanahi ere, datu horiek ikasmailaren

arabera aztertuz gero, zantzu bat nabari da bi hizkuntzen aldi bereko transmisioa jaisten ari dela. Beste hizkuntza batzuen transmisioa, berriz, hazten ari da adinean behera, baina apala da oraingoz.


2. grafikoa: Ikasleen lehen hizkuntza, irakastaldiaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Arnasguneak eta udalerri euskaldunak alderatuta, ezagutzen soilik ez, lehen hizkuntzan ere alde nabaria dago: euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa 16 puntu handiagoa da arnasguneetan.

3. grafikoa: Ikasleen lehen hizkuntza, eremu soziolinguistikoaren arabera (%)




Iturria: UEMA

ERRAZTASUN ERLATIBOA

Euskara erabiltzeko faktore erabakigarria da erraztasun erlatiboa: hiztuna zein hizkuntzatan aritzen den erosoan. Udalerrri euskaldunetako gaztetxo gehienak euskaraz moldatzen dira errazago (%55).

4. grafikoa: Ikasleen erraztasun erlatiboa (%)




Iturria: UEMA

Erraztasunaren aldagaiak sarritan lotura izan ohi du lehen hizkuntzarekin: umetan zein hizkuntza jaso zuen etxean, zein hizkuntzatan hazi zen, horrek baldintzatzen du erraztasuna hein batean. Lotura hori nabarmen ikusten da bi aldagaiak gurutzatzean, batez ere euskarari dagokionez: lehen hizkuntza euskara dutenen %80k euskaraz egiten dute aiseago. Gaztelaniarekin ere hala gertatzen da, baina hein txikixeagoan: gaztelania jaso zutenen %74 moldatzen dira errazago hizkuntza horretan. Lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania dituztenei dagokienez, paretsuan daude emaitzak: %47k antzeko gaitasuna dute bi hizkuntzetan; %26 euskaraz moldatzen dira aiseago; eta %27, gaztelaniaz.

Datu horiek agerian jartzen dute, beraz, transmisioa euskara hutsezkoa izan ala bi hizkuntzetakoa, horren arabera aldea dagoela erraztasunean —besteak beste, baita etxeko erabilera-ohituran ere—.

Lehen hizkuntzaren eta erraztasunaren arteko loturari dagokionez, aztertzekoa da lehen hizkuntza euskara edo gaztelania ez dutenen egoera. Euskaraz baino erraztasun handiagoa daukate gaztelaniaz egiteko, baina argigarria da joera bat: lehen hizkuntza gaztelania dutenen aldean, gehiago dira euskaraz errazago aritzen direnak (%27 vs. %3), edo bietan antzera jarduten dutenak (%34 vs. %23). Aldagai horrek erraztasun erlatiboa alderatzen du, alegia, euskararen eta gaztelaniaren artean zein duten hizkuntza errazagoa —ez du esan nahi hori denik hobekien menperatzen duten hizkuntza—.


5. grafikoa: Ikasleen erraztasun erlatiboa, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Arnasguneen eta gainerako udalerri euskaldunen arteko diferentzia nabarmendu egiten da erraztasun erlatiboa aztertzean: euskaraz aiseago egiten dutenen ehunekoa 19 puntu handiagoa da arnasguneetan. Horrek zantzu bat ematen du erabilerak erraztasun erlatiboan duen garrantziaz.

6. grafikoa: Ikasleen erraztasun erlatiboa, eremu soziolinguistikoaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Eremu soziolinguistikoaren arabera datu horiek eraman daitezke herrialde-maila ere, eta han ere islatzen dira aldaketak. Hara: Gipuzkoako UEMAko udalerrietan, gaztetxoek %58k egiten dute euskaraz aiseago, eta Nafarroakoetan, %56k; Bizkaian, berriz, koska dago, %42 baitira horiek.

ERABILERA

Hizkuntzen erabilera aztertzeko, honako eremu hauek hartu dira kontuan: etxea, ikasgela, ikasgelaz kanpoko eremua ikaskideekin, lagunartea eta eskolaz kanpoko jarduerak. Eremu guztietan euskara da hizkuntza nagusia, baina badira gorabeherak: ikasgelan erabiltzen dute euskara gehien UEMAko udalerrietako gaztetxoek, diferentzia adierazgarriarekin (%82); erabilerarik apalena etxekoa da (%71), eta haren paretsukoa da lagunarteko erabilera (%72); eskolaz kanpokoetan, antzekoa (%74).

7. grafikoa: Euskararen erabilera-indizea, eremuaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Gune soziolinguistikoa

Erabilera-indize horiek ematen dute sakonago aztertzeko modua. Batetik, gune soziolinguistikoa hartzen bada aintzat, nabari dira diferentziak arnasguneen eta arnasgune ez diren udalerrien artean. Erabilera-indize guztiak handiagoak dira arnasguneetan, eta bi tipologietan ageri da ikasgela buruan (%90 arnasguneetan eta %79 gainerakoetan). Hortik aurrera, baina, ñabardura handiak daude. Arnasguneetan, etxeko erabilera da apalena, diferentzia esanguratsuekin; gainerako udalerrietan, berriz, lagunartean egiten da etxean baino gutxiago. Bestela esanda: arnasguneen eta arnasgune ez diren arteko diferentziarik handienak parekoen arteko hizkuntza-erabileran daude, ikaskideen arteko harremanetan eta lagunartean: 19 puntuko tartean —etxean 13 puntu dira, eta eskolan, 11—.

8. grafikoa: Euskararen erabilera-indizea, eremuaren eta gune soziolinguistikoaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Lehen hizkuntza

Euskararen erabilera faktore giltzarria izan ohi da lehen hizkuntza, eta datuotan ere sumatzen da aldea. Indize guztietan, buruan daude euskara lehen hizkuntza dutenak. Datu orokorren aldean, badute ñabardura inportante bat: soslai horretako ikasleek etxean egiten dute euskaraz gehien (%91), lagunekin baino gehiago (%83), eta, areago, ikasgelan baino gehiago (%87). Gainerako tipologietan, berriz, etxea da erabilera apaleneko eremua, eta handienekoa, ikasgela. Lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania jaso dituztenen artean, euskara da hizkuntza nagusia erabilera-eremu guztietan, baita etxean bertan ere (%59); lehen hizkuntza gaztelania dutenei dagokienez, ikasgela da euskara nagusi den eremu bakarra (%64), baina alde adierazgarria dago etxetik (%14) lagunartera (%42). Azkenik, lehen hizkuntza beste bat dutenen kasuan, nabarmena da joera bat: euskara gehiago erabiltzen dute gaztelania lehen hizkuntza dutenek baino, bai etxean (%22), bai eskolan (%75), bai lagunekin (%57).

9. grafikoa: Euskararen erabilera-indizea, eremuaren eta lehen hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Erraztasun erlatiboa

Lehen hizkuntzarekin bezala, erraztasun erlatiboarekin ere sortzen dira aldeak erabilera-indizeetan: zenbat eta erosoago euskaraz, erabilera handiagoa. Euskaraz errazago moldatzen direnek etxean eta eskolan erabiltzen dute euskara gehien (%91), eta gainerako eremuetako erabilera oso gertu dago (%88). Bietan antzeko erosotasuna dutenen artean, berriz, ikasgelako erabilerak diferentzia jartzen du (%79), eta etxeko erabilera da apalena, nahiz eta hor ere euskara izan nagusia (%62). Gaztelaniaz errazago egiten dutenen kasuan handiagoa da ikasgelak (%59) gainerakoetara duen tartea, bai etxera (%26), bai lagunartera (%35). Hots, euskaraz aritzeko erraztasuna gutxiagotu ahala, euskararen erabilera jaistearekin batera, areagotu egiten da ikasgelako jardunaren eta kanpokoaren arteko aldea.

10. grafikoa: Euskararen erabilera-indizea, eremuaren eta erraztasun erlatiboaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Irakastaldia

Irakastaldi batetik bestera ere nabari dira diferentziak, baina horiek aztertzean ezinbestean hartu behar da gogoan ikasleriaren hizkuntza-ezaugarriak desberdinak direla etapa bakoitzean. Datuek joera argi bat erakusten dute: ikasgela da kasu guztietan euskararen erabilera handieneko eremua, baita adinean gora joatean ere. Badago diferentzia bat Batxilergoko ikasleen eta gainerakoen artean: Batxilergoan, etxeko erabilera da apalena, eta alde nabarmena dago gainerako eremuetara; Lehen Hezkuntzan eta DBHn ere etxean egiten da gutxiago, baina ez dago horrenbesteko alderik.

11. grafikoa: Euskararen erabilera-indizea, eremuaren eta irakastaldiaren arabera (%)




Iturria: UEMA

TXAT BIDEZKO ERABILERA

Hizkuntzen erabilera hobeto aztertze aldera, aurrez aurreko harremanari ez ezik, erreparatu zaio txat bidezkoari ere, mezularitza-aplikazioen erabilera handia dela ikusirik. DBHko eta Batxilergoko ikasleei egin zaie galdera hiru eremuri buruz: etxekideak, ikaskideak eta lagunak. Emaitzetan berretsi egiten da joera: ikaskideekin egiten da gehien, lagunekin ondoren, eta etxekideekin azkenik. Baina argigarria da beste alderaketa bat egitea: etxekoekin eta lagunekin, aurrez aurreko harremanetan baino apalxeagoa da euskararen erabilera txat bidezko harremanetan —hiru-lau puntuko aldea—; ikaskideen artean, berriz, ez da nabari jaitsiera hori, baizik eta erabilera handiagoari eutsi egiten zaio.


12. grafikoa: Euskararen erabilera-indizeak, eremuaren arabera (%). DBH eta Batxilergoa.



Iturria: UEMA

Lehen Hezkuntzako ikasleei galdetu zaie lagunekin zein hizkuntzatan aritu ohi diren txatean, baldin eta aritzen badira. Gehienak, bai, aritzen dira: %85ek adierazi dute txat bidez harremanak izaten dituztela lagunekin. Euskara da erabilera handieneko hizkuntza, alde nabarmenarekin: Lehen Hezkuntzako gaztetxoek %38k beti euskaraz egiten dute lagunekin, eta %21ek, gehienetan.


13. grafikoa: Txatean lagunekin aritzeko hizkuntza (%). Lehen Hezkuntza.



Iturria: UEMA

Gai horrekin lotuta, Lehen Hezkuntzako ikasleei egin zaie beste galdera bat ere: sakelako telefonoa ba ote duten edo halako telefonorik erabiltzen ote duten. Gehienek, lautik hiruk, erabiltzen dute: %36k beren telefonoa daukate, eta %39k gurasoena baliatzen dute. %26k, berriz, ez dute erabiltzen.


14. grafikoa: Sakelako telefonoaren erabilera (%). Lehen Hezkuntza.



Iturria: UEMA

Telefonoaren erabilera ez dago alde esanguratsurik ikasleen sexuaren arabera, ezta arnaguneen eta arnagune ez direnen artean ere. Diferentzia beste aldagai batek jartzen du: lehen hizkuntzak. Euskara lehen hizkuntza dutenen kasuan, gutxiengoak du norbere telefonoa (%28), eta gehiagok erabiltzen dute gurasoena (%43), edo ez dute telefonorik erabiltzen (%30). Gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten ikasleen artean, berriz, bestelakoa da argazkia: gehienek daukate beren telefonoa (%57), eta gurasoena erabiltzen dute laurdenek inguruk; erabiltzen ez dutenak %15 dira.

15. grafikoa: Sakelako telefonoaren erabilera, lehen hizkuntzaren arabera (%). Lehen Hezkuntza.



Iturria: UEMA


TELEBISTA

Ikus-entzunezkoen kontsumoa aztertzean, telebistari heldu zaio lehenik. Batetik, ohiko telebista aztertu da, lineala, telebista-kateak oinarri dituen; bigarrenik, *online* plataformei begiratu zaie, horiek ere telebistaren aldagaitzat hartuta. Kontsumoari buruzko datuak aztertzean aintzat hartu behar da nola ari diren kontsumo-ohiturak aldatzen, eta nolako hibridazioa gertatzen ari den bi telebista-eredu horien artean. Belaunaldi berriak dira, hain justu, aldaketa horren lehen katebegia.

TELEBISTA LINEALA

Ikus-entzunezkoen kontsumoa aztertzean, lehenik telebistari heldu zaio, ohiko telebista kateei. Jasotako erantzunen arabera, gaztetxo gehienek badute ohitura telebista ikusteko: %17k adierazi dute azken hiru egunetan ez dutela batere katerik ikusi. Gehien ikusten den katea ETB1 da, alde nabarmenarekin: hirutik batek baino gehiagok hautatu dute (%36). Atzerago dago beste kate-sail bat, %20ren bueltan (Telecinco, Clan eta FDF), eta koska bat beherago daude beste dozena erdi bat kate, %15 aldera —multzo horretan dago ETB3, haurrentzako euskarazko katea, %12ko ehunekoarekin—. Gainerako kateak %10etik behera daude —tartean, euskarazko toki-telebistak¹—.

16. grafikoa: Telebista kateen kontsumoa (%)



Iturria: UEMA


¹ Galdetegietan ez da berariaz aipatu toki-telebista bakoitzaren izena, eta horrek eragin dezake emaitzetan.

Irakastaldia

Telebista-kontsumoan alde nabarmenak daude ikasleen adinaren eta hizkuntza-ezaugarrien arabera. Datuak irakastaldiaren arabera aztertuta, diferentzia nabarmenak ageri dira, batetik, Lehen Hezkuntzaren eta gainerakoen artean, haurrentzako kateen kontsumoarekin lotuta; izan ere, Lehen Hezkuntzan kate tematiko horiek dira nagusi, eta txikiagoa da kate jeneralisten kontsumoa. Bestetik, diferentzia handia dago telebistarik ikusten ez dutenen ehunekoan: adinean gora, handitu egiten da telebista ikusten ez dutenen ehunekoa —Lehen Hezkuntzan, %11; DBHn, %19; Batxilergoan, %23—.

Euskarazko katei erreparatzen bazaie bereziki, honako hauek dira joerak: ETB1en kontsumoa hazi egiten da pixka bat adinean gora egin ahala, batik bat Batxilergoan. ETB3ren kasuan, berriz, espero izatekoa zen eran, batez ere Lehen Hezkuntzan dauka tokia (%22); irakastaldi horretan, Clan katearen audientziak (%43) bikoiztu egiten du ETB3rena, eta ETB1 bera ere koska bat gorago ageri da (%34).

17. grafikoa: Telebista kateen kontsumoa, irakastaldiaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Lehen hizkuntza

Telebista-kontsumoa lehen hizkuntzaren arabera aztertuta, badaude gako interesgarri batzuk. Batetik, euskarazko kateen kontsumoa oso lotua dago lehen hizkuntzarekin: ETB1en segimendua askoz handiagoa da euskara lehen hizkuntza duten gaztetxoaren artean (%46), gaztelania dutenen

artean baino (%11); ETB3ren kasuan dago ñabardura, lehen hizkuntza gisa beste bat dutenen kontsumoa (%14) euskara lehen hizkuntza dutenen paretsukoa baita. Deigarria da joera hori beste kate batekin ere: ETB2rekin. Euskara lehen hizkuntza dutenen kontsumoa bi aldiz handiagoa da, lehen hizkuntza gaztelania dutenekin konparatuta. Gaztelaniazko kate batzuetara, berriz, gehiago jotzen dute lehen hizkuntza gaztelania dutenek, edo euskara eta gaztelania batera jaso dituztenek, eta gutxiago lehen hizkuntza euskara edo beste bat dutenek; horren adibide dira Telecinco, FDF, Neox, Antena3 eta La Sexta kateak. Telebistarik ez kontsumitzeko joeran ere ageri dira diferentzia batzuk lehen hizkuntzaren arabera: euskara lehen hizkuntza dutenen artean gehiagok daukate ohitura telebista ikusteko (%86), gaztelania dutenen (%80) edo beste bat dutenen artean baino (%74).

18. grafikoa: Telebista kateen kontsumoa, lehen hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Lehen hizkuntza eta irakastaldia

Azterketa xeheagoa egin da euskara lehen hizkuntza dutenekin, datuak irakastaldiaren arabera aztertuta. ETB1 katea ikusten da gehien ezaugarri horretako ikasleen artean, irakastaldi guztietan, baina joera batekin: adinean gora, hazi egiten da ETB1en kontsumoa. Aurkakoa gertatzen da, diferentzia handiz, ETB3rekin: zenbat eta gazteago, gehiago. Lehen Hizkuntzari dagokionez, euskara lehen hizkuntza duten umeei Clan ikusten dute gehiago (%41), ETB3 baino (%27). Adinean

gora egin ahala, erdarazko kate jeneralista batzuen kontsumoa areagotu egiten da: ETB2, Telecinco, Cuatro... Telebistarik batere ikusten ez dutenen joera errepikatu egiten da euskara lehen hizkuntza dutenen artean: zenbat eta gorago adinean, handiagoa da telebistarik ikusten ez dutenen ehunekoa.

19. grafikoa: Euskara lehen hizkuntza dutenen telebista-kontsumoa, irakastaldiaren arabera (%)



Iturria: UEMA


Ohiko telebistari buruzko datuak interpretatzerakoan, kontuan hartu behar da kontsumoa gain behera doala belaunaldi berrietan. Kulturaren Euskal Behatokiak 2019an egindako *Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta* lanak erakusten du adinean behera joan ahala txikiagoa dela telebista-kontsumoa: 65 urtetik gorako euskal herritarren artean, %94k ikusi ohi dute telebista egunero; 45-54 urtekoen artean, %83k; eta 15-24 urtekoetan, %58k. Denbora-tarteetan ere nabari da jaitsiera hori: ohiko telebista ikusten ematen den denbora gutxituz doa urterik urte, eta jaitsiera horren buru dira belaunaldi berriak —joera hori garbi erakusten du Barlovento aholkularitza-enpresaren azken azterketak, *Ánàlisis de la industria televisiva-audiovisual 2021* izenekoak—. Telebista-kontsumo hibridoa ari da lekua egiten, non uztartzen diren ohiko telebista lineala eta *online* bidezko plataformak. Horregatik hartu behar dira tentuz telebistaren kontsumoari buruzko datuak, ez baitute islatzen ikus-entzunezkoen kontsumo osoa. Gainera, telebista linealak badauka beste osagai bat ere: familia. Telebista ikusteko ohiko euskarria telebista da, eta etxean ez da buruko

telebista bat izaten, oro har. Horrek dakar telebista-kateen kontsumoa neurri batean etxeko ohiturei lotua egotea, eta ez izatea, horrenbestez, gaztetxoek une bakoitzean egindako hautuaren ondorioa.

PLATAFORMAK

Plataforma nagusia Netflix da UEMAko gaztetxoek artean: %62k ikusi dute azken hiru egunetan. Gainerako plataformak diferentzia handira daude: Amazon Prime Videoren erabilera erdia da (%33), eta MovistarPlusena, herena (%20). Gainerako plataformak %10eko langatik behera daude. Tartean dago EITB-Nahieran plataforma, %10eko audientziarekin —EITBren euskarazko eta gaztelaniazko edukiak dauzka—. Plataformarik erabiltzen ez dutenen portzentajea %18koa da, telebista lineala ikusten ez dutenen ehunekoaren pare —puntu eta erdi handiagoa da ehuneko—.

20. grafikoa: Plataformen kontsumoa (%)




Iturria: UEMA

Irakastaldia

Adinaren arabera ez dago alde handirik plataformen erabilera: Lehen Hezkuntzan %20k ez dituzte erabiltzen; DBHn, %17k; eta Batxilergoan %18k. Plataforma jakin batzuen kontsumoan, bai, badaude diferentziak: plataforma batzuen kontsumoa areagotu egiten da adinean gora joan ahala (Netflix, Movistar+, Mitele...), eta beste plataforma batzuen, jaitsi (Disney+ eta FuboTV, adibidez).

21. grafikoa: Plataformen kontsumoa, irakastaldiaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Lehen hizkuntza

Plataformen kontsumoa lehen hizkuntzaren arabera azterturik, diferentzia nabarmenak ageri dira. Batetik, plataformarik erabiltzen ez dutenei dagokienez, diferentzia handia dago lehen hizkuntza gisa atzerriko hizkuntzak dituztenekin: batez bestekotik hamahiru puntu gorago dago plataformarik erabiltzen ez dutenen ehunekoa (%31) —euskara lehen hizkuntza dutenek ere gutxi ere erabiltzen dituzte, lehen hizkuntza gisa biak edo gaztelania soilik jaso dituztenekin alderatuta—. Joera hori errepikatu egiten da plataforma nagusietan, Netflixen eta Amazon Primen: lehen hizkuntza gaztelania edo euskara-gaztelania dutenek erabiltzen dituzte gehien, euskara lehen hizkuntza dutenek ondoren, eta gutxien, beste hizkuntza bat dutenek. Besteetan badira mugimenduak, eta nabarmenena EITB Nahieran kasua da: lehen hizkuntza euskara dutenen artean dauka sarbiderik indartsuena (%14), eta txikiena, gaztelania dutenen artean (%1).

22. grafikoa: Plataformen kontsumoa, lehen hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Generoa

Plataformen kontsumoan alde adierazgarriak daude generoaren arabera, batez ere plataforma zehatz batzuen audientzian. Plataformarik erabiltzen ez dutenen ehunekoa handiagoa da gizonezkoetan (%21). Emakumeen kontsumoa bereziki da handiagoa honako plataforma hauetan: Netflix, Amazon Prime Video eta EITB Nahieran; gizonak gehiago dabiltza, ordea, Movistar+ eta FuboTV plataformetan —kirol-eskaintza oparoa daukate plataforma horiek—. Ez-binarioen emaitzei dagokienez, kontuan hartu behar da horien kopurua nabarmen txikiagoa dela.

23. grafikoa: Plataformen kontsumoa, generoaren arabera (%)




Iturria: UEMA

TELESAILAK

Telebista lineala eta plataformak kontuan hartuta, telesail batzuen kontsumoa aztertu da: inkesta egin den garaian gehien ikusten ari ziren telesail batzuk proposatu zaizkie ikasleei, horietako zein ikusi dituzten seinalatzeko. DBHn eta Batxilergoan egin da galdera hori. Proposatutako telesailen artean, *La casa de papel* telesailak du jarraipenik handiena (%54), eta euskarazko telesail bat dago bigarren lekuan: *Goazen* (%45). Honako telesail hauek ere DBHko eta Batxilergoko ikasleen laurdenek baino gehiagok ikusi dituzte: *Elite* (%44), *Stranger Things* (%40), *Riverdale* (%34), *Sex education* (%33), *Vis a vis* (%29), *Modern family* (%27) eta *Merli* (%25). Euskarazko telesailetan, *Goazen* kenduta, %10etik behera daude gainerakoak: *Altsasu* (%8), *Ihesaldia* (%4) eta *Alardea* (%3).


24. grafikoa: Gehien ikusitako telesailak (%). DBH eta Batxilergoa



Iturria: UEMA

Erdarazko telesailen kontsumoan, oro har, ez dago alde handirik ikasleen hizkuntza-ezaugarrien arabera. Euskarazkoen kontsumoan, ordea, bai. *Goazen*-en kasuan, euskara lehen hizkuntza duten gehienek ikusi dute telesaila (%52), eta lehen hizkuntza biak dituztenen ehunekoa ere gertu dago (%44); koska bat atzerago daude gaztelania lehen hizkuntza dutenak (%25) eta beste bat dutenak (%24). Euskarazko gainerako telesailetan ere hori da joera, betiere ehuneko apalagoekin. *Goazen*-en hedadura zenbatekoa den iristeko, argigarria da lehen hizkuntzaren arabera rankinga egitea: euskara lehen hizkuntza duten ikasleen kasuan, gehien ikusitako telesailetan bigarrena da —*La casa de papel*-en atzetik—; lehen hizkuntza biak dituztenen artean eta beste hizkuntza bat dutenen artean, laugarrena; eta lehen hizkuntza gaztelania dutenetan, zortzigarrena.

25. grafikoa: Euskarazko telesailen kontsumoa, lehen hizkuntzaren arabera (%). DBH eta Batxilergoa.




Iturria: UEMA

TELESAILEN HIZKUNTZA

Telesailei buruzko azterketa osatzeko, beste galdera bat egin zaie ikasleei: azkena ikusi duten telesaila zein hizkuntzatan zegoen. Lehen Hezkuntzako ikasleei ere egin zaie galdera hori. Erabatekoa da gaztelaniaren nagusitasuna: ia lautik hiruk ikusi dute azken telesaila edo marrazki biziduna gaztelaniaz (%73). Beste hizkuntza batzuetan ikusi dutenen ehunekoa —ingeleza eta gainerako hizkuntzak batuta— handiagoa da (%12), euskaraz ikusi dutenena baino (%11). Ikasle gehienek dute ohitura telesailak edo marrazkiak ikusteko: %4k adierazi dute ez dutela deus ikusten.

26. grafikoa: Azken telesailaren hizkuntza (%)




Iturria: UEMA

Irakastaldia

Telesailen hizkuntzan alde nabarmena dago irakastaldiaren arabera: adinean gora, txikiagoa da euskaraz ikusten dituztenen ehunekoa. Kontuan hartu behar da eskaintza ere nabarmen mugatua dela. Lehen Hezkuntzan, bostetik batek (%19) adierazi du azken seriea euskaraz ikusi duela —marrazki bizidunak dira kasu askotan—, eta ehuneko hori %6ra jaisten da DBHn, eta %3ra Batxilergoan. Adinarekin euskaraz galtzen duen espazioa ez du gaztelaniak irabazten —nahiz eta kasu guztietan hizkuntza nagusia den—, baizik eta ingelesak: zenbat eta gorago adinean, gero eta handiagoa da ingelesezko telesailen kontsumoa —Batxilergoan, ia bostetik batera heltzen da—.

27. grafikoa: Azken telesailaren hizkuntza, irakastaldiaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Lehen hizkuntza

Telesailen eta marrazki bizidunen kontsumoan alde nabaria dago ikaslearen lehen hizkuntzaren arabera. Euskara lehen hizkuntza dutenek ikusi dute gehien azken telesaila euskaraz, baina betiere gutxiengo nabarmena dira: %14. Gainerako hiztun-tipologietan, ordea, ingelesezko telesailen eta marrazki bizidunen presentzia handiagoa da euskarazkoena baino. Ñabardura pare bat dituzte lehen hizkuntza gisa beste bat dutenek: batetik, adierazgarria da beste hizkuntza batzuetako telesailen kontsumoa —ingeleza eta gainerakoak batuta, %26—, eta, euskarazko telesailen dagokienez, haien kontsumoa zerbait handiagoa da gaztelania lehen hizkuntza dutenena baino.

28. grafikoa: Azken telesailaren hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: UEMA


SARE SOZIALAK

Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko ohiko lekua dira sare sozialak ere, eta horien kontsumoa izan da aztergai kapitulu honetan. Analisia egitean, kontuan hartu behar da faktore bat: eskaintza oso zabala da sare sozialetan eta Interneten, telebistan baino zabalagoa, eta horrek zaildu egiten du argazki xeheak egitea. Hortaz, sare sozial eta kontsumo-joera nagusiak aztertu dira atal honetan.

ERABILERA OROKORRA

Ikasle gehienek erabiltzen dituzte lau sare sozial, nahiz eta alde esanguratsuak dauden: Youtube (%85), Whatsapp (%74), Tiktok (%65) eta Instagram (%56). Eskaileran behera eginda, bostetik bi ibili ohi dira Snapchaten (%40), eta lautik bat Twitchen (%24). Ikasleen artean hedadura apalagoa daukate honako hiru sare sozial hauek: Twitterrek (%13), Telegramak (%6) eta Facebookek (%4). Ohiko kontsumoa izan da aztergai: galdetu da azken hiru egunetan zein sare sozialetan ibili diren.

29. grafikoa: Sare sozialen erabilera (%)




Iturria: UEMA

Irakastaldia

Adinaren arabera diferentzia handiak daude sare sozialen erabileran. Batetik, Lehen Hezkuntzan, Youtube alde batera utzita, gutxiengoa da sare sozialen erabiltzaile —kontuan hartu behar da hein batean sakelako telefonoarekin lotua dagoela sare sozialetako jarduna, eta Lehen Hezkuntzan

%36k daukatela norbere telefonoa—. DBH eta Batxilergoa alderatuta, joera nagusia hau da: zenbat eta gorago adinean, sare sozial gehiagotan dabilta ikasleak. Baina ez guztietan: Tiktoken erabilera handiagoa da DBHn (%79), Batxilergoan baino (%68); aldi berean, Lehen Hezkuntzan, Youtube kenduta, Tiktokek du hedadura handiena (%45). Twitchen ere gehiago dabilta DBHko ikasleak (%32), Batxilergokoak baino (%24). Batxilergoan, ia erabat hedatua dago Whattsappen erabilera (%98), baita DBHn ere (%93); Batxilergoan hedadura ia erabatekoa dauka Instagramek ere (%96). Twitterri dagokionez, Batxilergoan du hedadura handiena, Lehen Hezkuntzatik alde oso handira, baina laurdenen heina ozta-ozta gaintitzen du. Facebooken erabilera, berriz, oso bazterrekoa da.

30. grafikoa: Sare sozialen erabilera, irakastaldiaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Generoa

Sare sozialen erabilera generoaren ikuspegitik aztertzen bada, azaleko lehen ondorioa zera da: ez-binarioena da erabilerarik handiena sare sozial guztietan. Kontuan hartu behar da, hala ere, ikasle ez-binarioen kopurua murrizta dela. Emakumeen eta gizonen arteko aldeari dagokionez, badira ñabardura handiagoak dituzten sare sozialak: Twitchen dago diferentzia adierazgarri bat, 30 puntukoa, gizonen erabilera handiagorekin; aurkakoa gertatzen da Snapchaten, non emakumeen erabilera 19 puntu handiagoa den. Gainerako sare sozialetan ere sumatzen dira diferentziak, nahiz eta leunagoak diren: gizon gehiago ibiltzen dira Youtuben, Twitterren, Telegramen eta Facebooken; emakumeek, berriz, gehiago jotzen dute Whattsappera, Tiktokera eta Instagramera.

31. grafikoa: Sare sozialen erabilera, generoaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Lehen hizkuntza

Sare sozialen erabilera joera desberdina dago ikaslearen lehen hizkuntzaren arabera, nahiz eta sare sozialen erabileraren hurrenkera gisa berekoa den ikasleen lehen hizkuntza aldatuta ere. Oro har, hau da norabidea: sare sozialak gehiago erabiltzen dituzte lehen hizkuntza gaztelania dutenek, eta euskara eta gaztelania dituztenek. Snapchat da salbuespen nagusia, lehen hizkuntza euskara dutenek baitaukate erabilera handiagoa, lehen hizkuntza gaztelania dutenekin konparatuta. Irakastaldiaren araberako datuak aztertzean bezala, hemen ere kontuan hartu behar da sakelako telefonoaren erabilera desberdina dela ikasleen hizkuntza-ezaugarrien arabera —lehen hizkuntza euskara dutenek dute telefono gutxien—, eta horrek eragina izan dezakeela sare sozialen erabilera.

32. grafikoa: Sare sozialen erabilera, lehen hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Hedadura handieneko sare sozialak sakonago aztertu dira, zuzenean mezularitzarekin lotutakoak aparte utzita. Lau sare sozial hauek aztertu dira, hortaz: Youtube, Tiktok, Instagram eta Twitch.

YOUTUBE

Sare horretan egiten duten denborari buruz galdetu zaie ikasleei lehenbizi: batez beste, egunean zenbat denbora ematen duten Youtuben. Hiru ikasletik bik ordubete baino gutxiago ematen dute sare horretan (%66), baina ia laurdenek dute egunean ordubetetik gorako kontsumoa Youtuben.

33. grafikoa: Egunean Youtuben emandako denbora (%)




Iturria: UEMA

Youtuben emandako denborari dagokionez, ez dago diferentzia esanguratsurik irakastaldiaren eta bizilekuaren arabera, baina beste bi irizpidek, bai, jartzen dute aldea: batetik, generoak —gizonezkoek denbora gehiago ematen dute Youtuben, emakumeek baino—; bestetik, lehen hizkuntzak —euskara lehen hizkuntza ez duten ikasleek denbora gehiago egiten dute Youtuben—.

Youtubeko edukiak

Zer-nolako edukiak bilatzen dituzte ikasleek Youtuben? Bi eduki-klase dira nagusi: youtuberrak (%54) eta musika (%54). Bigarren sail batean ageri dira memeak (%34) eta kirola (%28), eta koska bat atzerago daude beste gai batzuk, %20tik behera: zinema (%16), eskulanak (%14), elkarrizketak (%13), ariketa fisikoa (%12), moda (%9), podcastak (%6)... Eduki-mota bat baino gehiago hautatu ahal izan dituzte ikasleek, eta, horrenbestez, portzentaje guztien batura 100 baino handiagoa da.


34. grafikoa: Youtuben ikusitako edukiak (%)



Iturria: UEMA

Edukietan badira diferentziak ikasleen generoaren eta adinaren arabera. Adinari erreparatzen bazaio, nabari da eduki-motaren arabera desberdina dela kontsumoa. Batetik, adinean gora egin ahala, handiagoa da eduki-klase gehienek kontsumoa, eta elkarrizketa-bideoetan dago alderik handiena; eduki batzuetan, ordea, ez da ageri joera hori —adibidez, eskulanetan eta memeetan—.


35. grafikoa: Youtuben ikusitako edukiak, irakastaldiaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Generoaren araberako desberdintasunak nabarmenagoak dira. Ez-binarioen datuak aparte utzita —lagina txikia da—, argigarria da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna. Gizonek zer edukitan dute kontsumo nabarmen handiagoa? Youtuberretan, memeean eta kirolean. Eta emakumeek? Musikan, eskulanean eta modan. Genero-rolen zantzu bat ematen dute emaitzek.

35. grafikoa: Youtuben ikusitako edukiak, generoaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Youtubeko hizkuntza

Eduki horiek kontsumitzeko hizkuntza nagusia, alde handiz, gaztelania da. Azterketa egiteko, ikasleen erantzunei tasa bat esleitu zaie, eta hau da argazki orokorra: gaztelaniazko edukiak dira nagusi ikasleen Youtubeko kontsumoan (%71); bigarren lekuan, alde handira, euskara eta gaztelania ez beste hizkuntza batzuk daude (%13); eta, azkenik, hirugarren postuan, euskara (%9).


36. grafikoa: Youtubeko edukien hizkuntza (%)



Iturria: UEMA

Youtubeko kontsumoaren hizkuntza desberdina da batez ere bi aldagairen arabera: irakastaldia (adina) eta ikaslearen lehen hizkuntza. Edozein kasutan, gaztelaniazko kontsumoa dago orokortua eremu guztietan. Irakastaldiari dagokionez, euskarazko eduki gehien Lehen Hezkuntzako ikasleek ikusten dute Youtuben, baina %16koa da heina. Adinean gora eginda, beste hizkuntzetako kontsumoak gaintitu egiten du euskarazkoa: DBHn, %6 euskaraz eta %14 beste hizkuntzetan; Batxilergoan, %4 euskaraz eta %20 beste hizkuntzetan. Gaztelaniazko kontsumoa %70 inguru da.


37. grafikoa: Youtubeko edukien hizkuntza, irakastaldiaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Euskara lehen hizkuntza dutenek jotzen dute gehiago euskarazko edukietara Youtuben, baina kontsumo mugatua da oso, %11koa, eta paretsuan dauka beste hizkuntza batzuetakoa ere (%11). Gainerako hiztun-tipologietan %10etik behera dago euskara, eta gorago beste hizkuntza batzuk.

38. grafikoa: Youtubeko edukien hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: UEMA

TIKTOK

Sare horretan egiten duten denborari buruz galdetu zaie ikasleei lehenbizi: batez beste, egunean zenbat denbora ematen duten Tiktoken. Kontuan hartu behar da ikasleen %31k ez dutela sare sozial hori erabiltzen. Gainerakoei dagokionez, hau da banaketa: %37k egunean ordubete baino gutxiago ematen dute Tiktoken, eta %33k, ordubete baino gehiago —%15ek, bi ordutik gora—.

39. grafikoa: Egunean Tiktoken emandako denbora (%)




Iturria: UEMA

Tiktoken erabilerari dagokionez, aldagai gehienen arabera daude diferentziak. Batetik, irakastaldiari dagokionez, Lehen Hezkuntzan da apalena Tiktoken erabilera (%51), eta handiena, DBHn (%82); bestetik, generoaren aldetik, emakumeek gehiago erabiltzen dute (%75), gizonek baino (%64); eta, hirugarrenik, lehen hizkuntzari dagokionez, gaztelania lehen hizkuntza duten ikasleak dabilta gehiago Tiktoken (%77), eta gutxien, lehen hizkuntza euskara dutenak (%65).

Tiktok ikusteko hizkuntza

Tiktokeko edukiak ikusteko hizkuntza nagusia gaztelania da, alde nabarmenarekin: ikasleen %54k ikusten dituzte gaztelaniazko edukiak —kontuan hartuta ikasleen ia herenak ez direla Tiktoken ibiltzen, Tiktokeko erabiltzaileen %78k ikusten dituzte edukiak gaztelaniaz—; beste hizkuntzak daude bigarren lekuan, %11rekin —Tiktoken erabiltzaileak soilik hartuta, %16—; eta euskaraz ikusten dituztenen ehunekoa nabarmen txikiagoa da, %4 —erabiltzaileak soilik hartuz gero, %6—.

40. grafikoa: Tiktoken ikusitako edukien hizkuntza (%)




Iturria: UEMA

Tiktokeko edukiak ikusteko hizkuntzan ez dago alde adierazgarriarik ikasleen ezaugarrien arabera.

Tiktokera edukiak igotzea

Ikasle gehienak ibiltzen dira Tiktoken, baina gehienek ez dute edukirik igotzen: %18k jartzen dituzte edukiak sare sozial horretan. Edukiak igotzean, hauek dira ohikoenak: koreografiak (%5), gai barregarriak (%3), tendentziak (%2), eguneroko kontuak (%2), challengeak (%2), coverrak (%1).

41. grafikoa: Tiktokera igotako edukiak (%)




Iturria: UEMA

Edukiak igotzeari dagokionez, badaude aldeak bi aldagairen arabera. Batetik, irakastaldia: Lehen Hezkuntzan da handiena edukiak igotzen dituztenen ehunekoa (%22), nahiz eta ikasle horiek ibiltzen diren gutxien Tiktoken; bestela esanda, Lehen Hezkuntzan, Tiktoken dabilzan ikasleen ia erdiak eduki-sortzaile ere badira, gainerako irakastaldietan ez bezala. Bestetik, generoa: edukiak sortzen gehiago aritzen dira emakumeak (%20), gizonak baino (%16). Generoaren arabera aldatu egiten da eduki-mota: emakumeetan koreografiak dira nagusi (%8); gizonetan, gai barregarriak (%4).

Tiktokera edukiak igotzeko hizkuntza

Tiktokera edukiak igotzeko hizkuntza nagusia gaztelania da: %14k jartzen dituzte edukiak gaztelaniaz —kontuan hartu, arestian esan den eran, %82k ez dutela edukirik igotzen Tiktokera; horiek kenduta, edukiak kargatzen dituzten ikasleen %76k erabiltzen dute gaztelania—. Euskara dago bigarren lekuan, oso alde handira (%3), eta atzetik, gainerako hizkuntzak (%2). Hitzunen ezaugarrien arabera ez dago alde handirik Tiktokeko jardunean: euskaraz gehixeago egiten dute emakumeek eta lehen hizkuntza euskara dutenak, baina, jarduera mugatua izanik, alde handirik gabe.

42. grafikoa: Tiktokera edukiak igotzeko hizkuntza (%)




Iturria: UEMA

INSTAGRAM

Instagramen ibiltzen dira ikasle gehienak, bostetik hiru, eta lehenik galdetu zaie batez beste egunean zenbat denbora ematen duten. Hau da banaketa: %39k egunean ordubete baino gutxiago egiten dute Instagramen, eta %20k, egunean ordubete baino gehiago —%7k, bi ordutik gora—.

43. grafikoa: Egunean Instagramen emandako denbora (%)




Iturria: UEMA

Instagramen erabileran aldea dago irakastaldiaren arabera. Lehen Hezkuntzan, ikasle gehienak ez dabilta Instagramen (%80), baina DBHn eta Batxilergoan, gehienak. Hara: egunean ordubetetik gora pasatzen dute sare sozial horretan Batxilergoko ikasleen %45ek, eta DBHkoen %26k; Lehen Hezkuntzako kasuan, berriz, %3k. Alde leunagoak daude beste bi aldagaitan: lehen hizkuntzaren aldetik, Instagram gehiago erabiltzen dute gaztelania lehen hizkuntza dutenek (%64) eta euskara eta gaztelania dutenek (%65); genero aldetik, emakumeek gehixeago (%61), gizonek baino (%57).

Instagramerako edukiak ikustea

Ikasle gehienak dabilta Instagramen, baina zer ikusten dute? Lagunen kontuak dira jarraipenik handienekoak (%47), eta koska bat atzerago dago jende ezaguna (%34). Hirugarren multzo batean honako hauek daude: kirola (%27), influencerrak (%26) eta musika (%21). Beste tematika batzuk beherago daude: gamerrak (%13), moda (%11), argazkilaritza (%8), hedabideak (%3), politika (%2)...


44. grafikoa: Instagramen ikusitako edukiak (%)



Iturria: UEMA

Edukiei dagokienez, generoaren arabera daude diferentziarik adierazgarrienak. Emakumeek gehiago jotzen dute honako eduki hauetara: lagunak, jende ezaguna, influencerrak, musika, moda eta argazkilaritza; gizonak, berriz, kirola eta gamerretara. Ez-binarioen kontsumoa handiagoa da eduki-mota batzuetan (jende ezaguna, kirola, musika...), baina horien kopurua murriztagoa da.

45. grafikoa: Instagramen ikusitako edukiak, generoaren arabera (%)




Iturria: UEMA

Instagramera edukiak igotzeko hizkuntza

Instagramera edukiak ikasle gutxiagok igotzen dituzte: %41ek, nahiz eta %59k erabili ohi duten sare sozial hori. Edukiak igotzeko hizkuntza nagusia euskara da, Tiktoken ez bezala: %21ek jarri ohi dituzte edukiak euskaraz, eta %19k gaztelaniaz. Beste hizkuntza batzuetan %2k igotzen dituzte.


46. grafikoa: Instagramera edukiak igotzeko hizkuntza (%)



Iturria: UEMA

Edukiak igotzeari dagokionez, lehen hizkuntzak jartzen du diferentziarik handiena. Euskara lehen hizkuntza dutenen kasuan, hori da edukiak igotzeko hizkuntza nagusia (%26), eta alde handira du gaztelania (%11). Lehen hizkuntza euskara soilik ez denean, ordea, gaztelania gailentzen da, eta euskara, jaitsi: lehen hizkuntza gaztelania dutenen artean, %7 euskaraz eta %38 gaztelaniaz.

47. grafikoa: Instagramera edukiak igotzeko hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: UEMA

TWITCH

Aurreko sare sozialek baino hedadura txikiagoa du Twitchek ikasleen artean (%24), eta batez ere mutilek erabiltzen dute —ikasle gizonezkoen %38 dabilta Twitchen, eta emakumeen %9—. Zer bilatzen dute sare sozial horretan? Bideojokoekin lotutako edukiek daukate jarraipenik handiena (%26), eta, koska bat atzerago, *just chatting* delako txatak (%10) eta kirolak (%9). Gainerako gaiak atzerago daude. Adinaren arabera ez dago alde adierazgarririk Twitchen bilatutako gaietan; genero aldetik badaude aldeak kontsumoan, baina gaiei hurrenkerari dagokienez, tankerakoa da.

48. grafikoa: Twitchen ikusitako edukiak (%)




Iturria: UEMA

Twitchen jarraitutako kontuen hizkuntza

Eduki horiek ikusteko hizkuntza nagusia gaztelania da. Ikasleei galdetu zaie zein hizkuntzatako kontuak jarraitzen dituzten, eta %27k erantzun dute gaztelaniazko kontuetan ibiltzen direla —Twitcheko erabiltzaileak soilik hartuta, %88 lirateke horiek—; atzerago daude beste hizkuntzak (%2), eta azken lekuan euskara (%1). Ikasleen ezaugarrien arabera ez dago alde handirik.

49. grafikoa: Twitchen jarraitutako kontuen hizkuntza (%)




Iturria: UEMA

Twitchera edukiak igotzeko hizkuntza

Sare sozial horretara edukiak igotzeko hizkuntza nagusia ere gaztelania da ikasleentzat: haietatik %27k igotzen dituzte edukiak Twitchera, eta %21ek gaztelania erabiltzen dute —Twitchera edukiak igotzen dituzten ikasleak soilik hartuta, %81 lirateke horiek—. Alde handira daude euskara (%3) eta beste hizkuntzak (%2). Ez dago alde handirik ikasleen ezaugarrien arabera.

50. grafikoa: Twitchera edukiak igotzeko hizkuntza (%)



Iturria: UEMA


MUSIKA

Ikus-entzunezkoen kontsumoa estu lotua dago maiz musikarekin, eta zehatzago aztertu nahi izan da musikaren kontsumoa: ikasleek non entzun ohi duten musika, eta zein hizkuntzatan. Ikusi denez, erabat hedatua dago musika entzuteko ohitura, eta Internet ohiko lekua da horretarako. Datu hauek berresten dute, horrenbestez, urteotan zer-nola aldatu den musika kontsumitzeko era.

MUSIKA ENTZUTEKO BITARTEKOA

Aurrez aztertutako bitarteko bat erabiltzen dute gehien ikasleek musika entzuteko: Youtube (%78). Bigarren lekuan Spotify aplikazioa ageri da (%69). Gainerako bitartekoak, berriz, nabarmen atzerago daude: Interneteko deskargak (%14), kontzertuak (%13) eta diskoak (%12).


51. grafikoa: Musika entzuteko bitartekoak (%)



Iturria: UEMA

Musika entzuteko bideetan alde adierazgarria dago irakastaldiaren arabera. Lehen Hezkuntzan, Youtube da bide nagusia, alde handiz (%82), baina Spotifyk hartzen du lehen lekua DBHn (%79) eta Batxilergoan (%87). Irakastaldi guztietan dira musika entzuteko bide nagusiak Youtube eta Spotify, eta alde handira daude besteak. Internetetik musika deskargatzen dutenen eta kontzertuetara joaten direnen ehunekoa areagotu egiten da adinean gora egin ahala; diskoei dagokienez, kontsumorik handiena Lehen Hezkuntzan (%15) eta Batxilergoan (%14) egiten dute.


52. grafikoa: Musika entzuteko bitartekoak, irakastaldiaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Generoaren aldetik ere badira diferentziak musika entzuteko bitartekoei dagokienez. Emakumeek gehiago erabiltzen dituzte musika entzuteko bide guztiak —horrek aditzera eman dezake haien musika-kontsumoa handiagoa dela—. Kasu guztietan berretsi egiten da bitartekoen hurrenkera.

53. grafikoa: Musika entzuteko bitartekoak, generoaren arabera (%)




Iturria: UEMA

MUSIKA ENTZUTEKO HIZKUNTZA

Ikasleek musika zein hizkuntzatan entzuten duten, erantzun-aukera batzuk proposatu zaizkie, eta horietatik hizkuntza bakoitzaren indizea kalkulatu da, emaitzak hobeto aztertze aldera. Argazkia honako hau da: ikasleen erdiek gaztelania dute musika entzuteko hizkuntza nagusia (%50), eta gainerako erdian antzeko ehunekoak dauzkate euskarak (%26) eta gainerako hizkuntzek (%25).


54. grafikoa: Musika entzuteko hizkuntza (%)



Iturria: UEMA

Musika entzuteko hizkuntzan alde handia dago irakastaldiaren arabera. Euskarazko musika gehien Lehen Hezkuntzan entzuten dute (%37), eta adinean gora egin ahala, gaztelaniazkoak ez ezik, bereziki beste hizkuntzetakoak egiten du gora: Lehen Hezkuntzan %17 da, eta Batxilergoan, %32.


55. grafikoa: Musika entzuteko hizkuntza, irakastaldiaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Lehen hizkuntza euskara duten ikasleek entzuten dute euskarazko musika gehien (%33), baina horietan ere gehiago dira gaztelaniazko musikaren entzule (%46). Ikasleen lehen hizkuntza aldatzearekin, nabarmen jaisten da euskarazko musikaren kontsumoa, eta areagotu egiten da gaztelaniazkoarena, baita beste hizkuntza batzuetako musikaren kontsumoa ere —euskara lehen hizkuntza dutenen kasuan, beste hizkuntzetan baino gehiago entzuten dute musika euskaraz; gainerako hiztun-tipologietan, ordea, handiagoa da beste hizkuntzetako musika-kontsumoa—.

56. grafikoa: Musika entzuteko hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: UEMA


BIDEOJOKOAK

Ikus-entzunezkoekin lotutako beste kontsumo bat aztertu da azkenik: bideojokoena. Hedadura handia dute joko horiek ikasleen artean, eta, gainerako eremuetan bezala, bi aztergai hartu dira: batetik, zenbatekoa den bideojokoen kontsumoa; bestetik, kontsumo hori zein hizkuntzatakoa den.

BIDEOJOKOETAN EMANDAKO DENBORA

Hiru ikasletik bi bideojokoen ohiko erabiltzaileak dira. Hau da banaketa: ikasleen %43k egunean ordubete baino gutxiago pasatzen dute bideojokoetan, baina ia laurdenek, ordubete baino gehiago —areago, hamar ikasletik batek egunean bi ordu baino gehiago pasatzen ditu bideojokoetan—.


57. grafikoa: Egunean bideojokoetan emandako denbora (%)



Iturria: UEMA

Bideojokoen kontsumoan gorabehera handiak daude ikasle-tipologiaren arabera. Zenbat eta gazteago, handiagoa da bideojokoen erabilera: Lehen Hezkuntzan, lau ikasletik hiru ibiltzen dira bideojokoetan (%78); DBHn, hirutik bi (%65); eta Batxilergoan, bostetik bi pasatxo (%43). DBHn, nahiz eta bideojokoetan aritzen direnen ehunekoa txikiagoa izan, ordubetetik gorako kontsumoa dutenen ehunekoa ez da Lehen Hezkuntzan baino apalagoa; Batxilergoan, bai, ehuneko txikiagoa da.


58. grafikoa: Egunean bideojokoetan emandako denbora, irakastaldiaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Generoaren araberako diferentzia are nabarmenagoa da bideojokoen erabileran. Ikasle gizonezko gehienak dira bideojokoen erabiltzaile (%89); gutxiengoa dira, ordea, emakumeetan (%45) eta ez-binarioetan (%43). Ordubete baino gehiagoko kontsumoan ere alde handia dago generoaren arabera: mutiletan, ia bostetik bik pasatzen dute egunean ordubete baino gehiago bideojokoetan (%38); portzentaje hori askoz ere murriztagoa da emakumeetan (%8) eta ez-binarioetan (%12).

58. grafikoa: Egunean bideojokoetan emandako denbora, irakastaldiaren arabera (%)




Iturria: UEMA

BIDEOJOKOEN HIZKUNTZA

Bideojokoen kontsumoa gaztelaniazkoa da batez ere (%54), eta, bigarren lekuan, alde handira, beste hizkuntzak daude (%19). Euskararen presentzia askozaz murriztagoa da bideojokoetan: %4.


59. grafikoa: Bideojokoen erabilera, hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Lehen Hezkuntzako ikasleek erabiltzen dute euskarazko bideojoko gehien —bideojoko gehien ere bai, oro har—, baina horien kasuan ere oso bazterrekoa da euskararen presentzia: %8. Adinean gora eginda, ia desagertu egiten da euskarazko bideojokoaren erabilera, %1 inguruan. Gainerako hizkuntzek ere Lehen Hezkuntzan baino presentzia apalagoa dute, kontsumoa txikiagoa delako.


60. grafikoa: Bideojokoaren hizkuntza, irakastaldiaren arabera (%)



Iturria: UEMA

Lehen hizkuntzari dagokionez, euskara lehen hizkuntza dutenek erabiltzen dute euskarazko bideojoko gehien, baina %5en azpitik. Gainerako ikasle-tipologietan are apalagoa da ehunekoa.

61. grafikoa: Bideojokoaren hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: UEMA

ONDORIOAK

Ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko azterketaren azken atal honetan, ikerketaren ondorio nagusiak jaso dira. Azterketaren ordenari jarraitu zaio ondorioetan, ahalik eta argienak izate aldera.

IKASLEEN HIZKUNTZA-EZAUGARRIAK

1. **Lehen hizkuntza.** Unibertsoa osatzen duten ikasleen artean orokortua dago euskararen ezagutza, baina denek ez dute lehen hizkuntza gisa jaso, baizik eta eskolan eskuratu dute. Bost ikasletik hiruk dute euskara lehen hizkuntza, baina adierazgarria da lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania dituztenen ehunekoa ere: lautik bat. Biztanleria orokorrarekin alderatuta, nabarmen handiagoa da portzentaje hori, eta iradokitzen du transmisioan zer aldaketa ari den gertatzen: gurasoen soslaia aldatzearekin (bikote mistoak, euskara lehen hizkuntza ez duten guraso euskaldunak...), areagotu egin da bi hizkuntzen transmisioa.
2. **Erraztasun erlatiboa.** Zein hizkuntzatan moldatzen diren ikasleak erosoago, horrek korrelazio handia dauka lehen hizkuntzarekin; alegia, euskara lehen hizkuntza dutenetan gehienak euskaraz aritzen dira errazago; biak dituztenak, bietan antzera; eta gaztelania dutenak, gaztelaniaz errazago. Alde horretatik, ikusita ele biko transmisioak nola egin duen gora belaunaldi berrietan, erraztasun erlatiboan badu eragina horrek ere. Euskara lehen hizkuntza ez dutenen kasuan, bada ñabardura bat: lehen hizkuntza gaztelania denean, apenas egiten dute ikasleek euskaraz errazago; lehen hizkuntza beste bat denean, ordea, ikasleen laurdenek diote gaztelaniaz baino erraztasun handiagoa dutela euskaraz.
3. **Erabilera.** Aztertu diren eremuetatik, ikasgela barrukoa da erabilerarik handiena, eta badago aldea gainerako eremuetara; hala ere, ikasgelaren eta gainerako eremuen arteko diferentzia handiagoa da udalerri euskaldunak ez direnetan. Etxean da apalena ikasleen erabilera, baina ñabardura batekin: arnagune ez diren udalerri euskaldunetan, lagunarteko erabilera apalxeagoa da etxekoa baino —akats-tartearen barruan dago diferentzia—, eta hor badago zer aztertua. Euskara lehen hizkuntza dutenek egiten dute euskaraz gehien; etxean egiten dute euskara gehien, gainera. Gainerako hiztun-tipologietan, berriz, etxea da erabilera apaleneko lekua. Lehen hizkuntza euskara ez dutenen kasuan, badago aldea lehen hizkuntza gaztelania ala beste hizkuntza bat izan: eremu guztietan euskara gehiago erabiltzen dute lehen hizkuntza gisa beste bat jaso dutenek, gaztelania jaso dutenek baino.

Aurrez aurreko erabilerarekin batera, beste bat ere aztertu da: txat bidezkoa. Badago alde apur bat bien artean: etxekoekin eta lagunartean gutxi xeago egiten da euskaraz txat bidez.

4. **Sakelako telefonoaren erabilera.** Lehen Hezkuntzako ikasleei galdetu zaie erabiltzen ote duten sakelako telefonorik, eta oso hedatua dago erabilera: lautik hiruk erabiltzen dute. Antzekoa da telefono propioa daukatenen eta gurasoena erabiltzen dutenen ehunekoa. Bada ñabardura adierazgarri bat: lehen hizkuntzaren arabera alde handia dago telefonoa erabiltzeari dagokionez. Euskara lehen hizkuntza ez dutenen kasuan, ia bostetik hiruk daukate norbere telefonoa, euskara lehen hizkuntza dutenen artean baino bi aldiz gehiagok.

TELEBISTA

5. **ETB1.** Ikasleek gehien aipatutako katea da, alde esanguratsuekin. Lehen hizkuntzarekin lotura estua dauka ETB1en kontsumoak: euskara lehen hizkuntza dutenen artean dauka irismenik handiena, eta nabarmen jaisten da gainerako hiztun-tipologietan. Hori ez da ETB1en soilik gertatzen: ETB2ra ere gehiago jotzen dute euskara lehen hizkuntza dutenek.
6. **ETB3.** Euskarazko marrazki bizidunen katea ez da Lehen Hezkuntzako ikasleen lehen hautua: ETB1 du gainetik, eta bereziki erdarazko marrazki bizidunen Clan katea, zeinak bikoiztu egiten duen ETB3 ikusten dutenen ehunekoa. Euskara lehen hizkuntza dutenak soilik hartuta ere, Clanek koska nabarmena ateratzen dio ETB3ri. Marrazki bizidunen gainerako kateak ETB3ren atzetik daude, baina Boing, adibidez, ETB3tik oso gertu dago.
7. **Erdarazko kateak.** Gaztelaniazko telebistetan honako kate hauek dira gehien aipatuak: Telecinco, Clan, FDF, ETB2 eta Neox. Euskara lehen hizkuntza ez dutenek gehiago jotzen dute erdarazko kateetara —ETB2 da salbuespena, euskara lehen hizkuntza dutenetan baitauka irismen handiagoa—. Audientzia orokorrekin konparatuta, adierazgarria da fikzioa ardatz duten kate batzuk (FDF, Neox...) kate jeneralista batzuen aurretik daudela.
8. **Telebistarik ez.** Telebistarik ez du ikusten sei ikasletik batek. Ehuneko hori areagotu egiten da adinarekin —Batxilergoan, ia lautik batek ez du ikusten telebista—, eta lehen hizkuntzaren arabera ere bai: euskara lehen hizkuntza ez dutenek gutxiago ikusten dute.

PLATAFORMAK

9. **Erabilera.** Bost ikasletik lauk erabili ohi dituzte plataformak, eta irakastaldi guztietan dago hedatua erabilera. Plataformak erabiltzen dituztenen ehunekoa telebista ikusten

dutenen parekoa da datu orokorretan, baina badaude aldeak irakastaldiaren arabera: Lehen Hezkuntzan, gehiago dira telebistaren erabiltzaile, plataformenak baino; DBHn eta Batxilergoan, alderantziz, ikasle gehiagok ikusten dituzte plataformak telebista baino. Plataformetara gutxien jotzen dutenak lehen hizkuntza gisa euskara edo gaztelania ez beste bat duten ikasleak dira; genero aldetik, gizonek gutxiago jotzen dute plataformetara.

10. **Netflixen nagusitasuna.** Alde handiarekin, Netflix da ikasle gehienek erabiltzen duten plataforma: ia hirutik bik. Nabarmen atzerago daude hurrengo bi plataformak, Amazon Prime Video eta Movistar+. Plataformen erabilera aldatu egiten da ikasleen ezaugarrien arabera. Batetik, adinaren aldetik, adinean gora egin ahala erabilera handiagoa dute Netflixek, Movistar+ek eta Mitelek, eta txikiagoa Disney+ek eta Fubok; bestetik, generoari dagokionez, emakumeak gehiago dabilta Netflixen, Amazon Prime Videon eta EITB Nahieranen, eta gizonak, Movistar+en eta Fubon —kirol eskaintza oparoa dute biek—.

TELESAILAK

11. ***La casa de papel* eta *Goazen*.** Bigarren Hezkuntzako ikasleei arrakasta handiko telesail batzuen zerrenda eman zaie, eta hautatu dute horietatik zein ikusi dituzten. Gehien ikusia *La casa de papel* da, Netflixeko telesaila: ikasleen erdiek baino gehiagok ikusi dute. *Goazen* euskarazko telesaila dago bigarren lekuan, beste serie entzutetsu guztien gainetik: ikasleen %45ek ikusi dute —kontuan izan Bigarren Hezkuntzako datuak direla horiek, eta Lehen Hezkuntzan ere segimendu handia daukala *Goazen*-ek—. Euskara lehen hizkuntza duten ikasleek jotzen dute *Goazen*-era gehiago —erdiek baino gehiagok—, baina euskara lehen hizkuntza ez dutenak ere erakartzen ditu: erdara lehen hizkuntza dutenetatik, laurdenak.
12. **Azken telesailaren hizkuntza.** Azken telesaila edo marrazki biziduna zein hizkuntzatan ikusi duten galdetuta, agerian geratzen da gaztelaniaren nagusitasuna: lautik hiruk ikusi dute azkena gaztelaniaz. Areago, euskararen gainetik daude beste hizkuntzak ere. Adin gazteenetan dago euskarazko kontsumorik handiena —marrazki bizidunekin lotuta—, baina hor ere bazterrekoa da: bostetik batek ikusi ditu azken marrazki bizidunak euskaraz. Kasu horretan, ikerketa osoan bezala, kontsumoa ez ezik kontuan hartu behar da eskaintza ere: telesailetan eta marrazki bizidunetan zenbateko eta nolako eskaintza dagoen euskaraz.

SARE SOZIALAK

13. **Gehien jarraituak.** Youtube da gaztetxo gehienek erabiltzen duten sare soziala (%85), eta atzetik ditu Whatsapp, Tiktok eta Instagram; lau horiek ikasle gehienek erabiltzen dituzte. Koska bat atzerago daude Snapchat eta Twitch. Adinean gora eginda, sare sozial gehiago darabiltzate ikasleek —ez guztiak, hala ere: Tiktoken eta Snapchaten gehiago dabilta DBHko ikasleak, Batxilergokoak baino—. Bigarren Hezkuntzan ia erabat hedatuak daude sare sozial batzuk: Batxilergoan, Whatsapp eta Instagram; eta DBHn, Whatsapp. Lehen Hezkuntzan, Youtube oso hedatua dago, baina gainerakoak, erditik behera —Tiktok da hedapen handieneko sare soziala adin-talde horietan, eta ez da ikasleen erdietara iristen—.
14. **Hizkuntza-erabilera.** Sare sozialetako jardunean gaztelania da hizkuntza nagusia, alde oso handiz: Youtuben, %76; Tiktoken, %78; eta Twitchen, %88 —sare sozial horietako erabiltzaileen gainean kalkulatu dira indizeak—. Gaztetxoek eurek nola sortzen dituzten edukiak, badago aldea: Tiktoken eta Twitchen, erdarazkoa da jardun gehiena —%13-14 euskaraz—, baina Instagramen handiagoa da euskarazko sorkuntza, %50ekoa. Kontuan hartu behar da sare sozial bakoitzak izaera desberdina daukala, eduki desberdinak direla bakoitzean ardatz, eta bakoitzean dabiltazan ikasleen hizkuntza-soslaia ere ez dela berbera.

MUSIKA

15. **Bitartekoa.** Musika entzuteko biderik hedatuenak bi dira: Youtube eta Spotify. Askoz ere atzerago daude gainerako bitartekoak. Adinaren arabera badago aldea Youtuberan eta Spotifyren artean: Lehen Hezkuntzan, Youtube da musika entzuteko biderik ohikoena, alde handiz; Bigarren Hezkuntzan, berriz, Spotifyra jotzen dute gehiagok. Generoari dagokionez, emakumeek gehiago erabiltzen dituzte musika entzuteko baliabide guztiak.
16. **Hizkuntza.** Gaztelania da musika entzuteko hizkuntza nagusia ikasleen artean: erdiek entzuten dute batik bat gaztelaniazko musika. Beste erdian, paretsu daude euskarazkoa eta beste hizkuntzetakoa. Euskarazko musika gehien Lehen Hezkuntzan entzuten dute, baina hor ere gaztelaniaz baino gutxiago; adinean gora joanda, jaitsi egiten da euskarazko musikaren hedadura, eta, gaztelaniazkoak ez ezik, beste hizkuntza batzuetako musikak hartzen du leku handiagoa. Orobat, euskara lehen hizkuntza duten ikasleek entzuten dute euskarazko musika gehien, baina betiere gaztelaniazko musika baino neurri murriztagoan.

BIDEOJOKOAK

17. **Erabilera.** Hiru ikasletik bi bideojokoen ohiko erabiltzaileak dira, baina alde handiak daude ikasleen soslaiaren arabera: ikasle gazteenek erabiltzen dituzte bideojokoak gehien —Lehen Hezkuntzan, %78k, eta Batxilergoan, %43k—, eta generoari dagokionez, gizonezkoek —gizonen %89 dira bideojokoen erabiltzaileak, eta emakumeen %45—.
18. **Hizkuntza.** Bideojokoen kontsumoa gaztelaniazkoa da batez ere: bideojokoak erabiltzen dituztenen artean, bostetik lauk adierazi dute batez ere gaztelaniazko jokoetan aritzen direla; euskarazkoen ehunekoa, berriz, nabarmen apalagoa da, %5etik beherakoa, eta euskarazko bideojokoak baino gehiago erabiltzen dituzte beste hizkuntza batzuetakoak. Kasu honetan ere, jakina, kontsumoari ez ezik, eskaintzari ere erreparatu beharra dago.